

Mondragon Unibertsitatea eta Danbaka

2010/10/14

Gaur goizean izan da Danbaka lehiaketako prentsaurrekoa.

Espaloia kafe antzokian egin da prentsaurreko hau eta bertan, lehiaketaren antolatzaileetaz gain, bi laguntzaile nagusiak izan dira: Mondragon Unibertsitatea eta Kutxa.

Mondragon Unibertsitatea, lehiaketa habian jarri zenetik dago laguntza eskeintzen musika arloan gazte ekintzaile diren hauentzat bideratutako ekimen honetan baina, 3. ediziotik hona, laguntzaile nagusien artean aurkitzen da.

Aurtengo honetan, IV. edizioa ospatuko da urriaren 22an hasita eta urtarrilaren 14an bukatuz eta Mondragon Unibertsitateak, Deba Goieneko talderik onenari emango dio bigarren urtez saria.

